

InDesign-en hitz-zatikatzailea erabiltzeko gomendioak (2013ko azaroan)

InDesign aplikazioan txertatzen diren erregelak erabiliz, hurrengo lerroetan agertuko diren testu-zati jakin batzuk banatzea ekidin nahi da. helbide.elektronikoa@elhuyar.com moduko testuak ez ditugu zaitu nahi; ezta interneteko helbideak ere.


Interneteko helbideen kasuan itxura ezberdinekoak topatu ditzakegu, adibidez [Zientzia.net](http://zientzia.net) webgunetik hartutako helbide luze hau <http://zientzia.net/artikuluak/ison-kometa-ikuskizunaren-zain/> edo elhuyar.org moduko helbide motzak.

Bestalde, eta proiektu honetarako finkatu diren irizpideetan horrela jasota dago, InDesign erabiltzaileak hutsune banaezinak definitzeko aukera izan behar du, hots, **50 g** azukre erosi ditut, **% 5**eko hazkundera izan du,... moduko esaldietan.


Pluginak hitzak zatitzeko oinarritzko baliabideak instalatzen ditu sisteman; baita Xuxen zuzentzaile ortografikoa ere. Hala ere, hitzak zatitzerako orduan malgutasuna eskaini asmoz, pluginaren erabilerarekin batera InDesign-ek berak eskaintzen dituen testuak prozesatzeko aukerak erabiltzea gomendatzen da.

Hurrengo lerroetan, testu-segida jakin batzuk ez zatitzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azalduko dira:

Estilo de carácter berri bat sortu, kasu honetan *No break* izeneko.




Karaktere-estilo berri honek izango duen ezaugarri garrantzitsua honakoa da: **Formato de caracteres básicos** atalean **No separar** aukera aktibatuta izango du. Gainontzean, edozein estilotan oinarritutako estilo berri bat izan daiteke.




Orain, karaktere-segida jakin batzuei karaktere-estilo hau esleituko diegu, hau da, zatitu nahi ez ditugun karaktere-segidak definituko ditugu.

Beraz, testu-kutxak daukan paragrafo-estiloaren gainean klik bikoitza egin, estilo honi dagozkion ezaugarriak ikusteko.



Behin pantaila berria irekita, ezker aldean dagoen **Estilo GREP** izeneko aukeran klik eginda hurrengo irudia bistaratuko da:



Nuevo estilo GREP aukera erabilita, erregela hauek sartuko ditugu bertan eta kontutan izango dugu **Aplicar estilo** aukeran **No break** aukeratu beharko dugula. Horrela, hemen zerrendatutako erregela horiek testuan aurkitzean, automatikoki **No break** karaktere-estiloa esleituko zaie; hitzak ez dira zatituko.

Hauek dira proposatzen diren patroietako batzuk:

- Interneteko helbideak detektatzeko: (http:\V)?(www\.)?w+(\.w+)(\V[^\s]+)*
- Helbide elektronikoak detektatzeko: [^\s]+@[^\s]+
- Ehunekoak, zuriune banaezinarekin: % \d+

Erabiltzailearen beharretara egokitu daitezke patrooi hauek.

Adibide praktikoa, Elhuyar Aldizkariko testu batean:

GREP estilorik gabe. Zientzia.net testua zatituta agertzen da.

Dokusare eta Elezkari ikerketa proiektu gisa jaio ziren eta urteetan aritu gara haietan ikertzen eta nazioarteko kongresuetan aurrerapenak aurkezten, baina gaur egun funtzionatzen duten teknologiak dira. Elhuyar Fundazioaren Zientzia.net webgunean jarri dira martxan estreinakoz. Euskarazko zientziaren ataria izateko bokazioa du Zientzia.net-ek, eta horregatik ez ditu bere bilatzailea eta antzeko edukietarako estekak barne-edukira mugatzen. Zientziari buruzko erreferentziatzko nazioarteko hainbat

GREP estiloak aplikatuta. Zientzia.net moduko testuak ez zatitzeko konfiguratu dugu InDesign.

Dokusare eta Elezkari ikerketa proiektu gisa jaio ziren eta urteetan aritu gara haietan ikertzen eta nazioarteko kongresuetan aurrerapenak aurkezten, baina gaur egun funtzionatzen duten teknologiak dira. Elhuyar Fundazioaren **Zientzia.net** webgunean jarri dira martxan estreinakoz. Euskarazko zientziaren ataria izateko bokazioa du **Zientzia.net**-ek, eta horregatik ez ditu bere bilatzailea eta antzeko edukietarako estekak barne-edukira mugatzen. Zientziari buruzko erreferentziatzko nazioarteko hainbat